

azoka

Txerri Eguneako azoka eta liburu azoka gaur, Oiartzunen

Oiartzunen (Gipuzkoa), Txerri Eguna ospatuko dute gaur. Goizeko 10:00etan zabalduko dute azoka, plazan, eta bertan askotariko produktuak salduko dituzte: kandelak, gazta, baserriko ogia, lore idorrak, barazkiak, haur arropa, ezti... eta, jakina, txerriak. Herriko talogileak ere azokan izanen dira. Baita Girizia mendi-

zale elkarteak eta Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilguneko kideak ere. Eta Haurtzaro eta Elizalde ikastetxeetako hurrek txistor postua paratuko dute. Oiartzun Irratiak, bere aldetik, irratsaioa egingen du azokatik bertatik. Eguerdiko 13:00etan, azokako produktu sorta eder baten zozketa egingen dute. Txerri Eguneako azokaz gainera, goizeko 10:00etan, Euskal Liburu eta Diskoen azoka zabalduko dute udaletxeko pleno aretoan.



IRATXE ASTUY
Gaur, Oiartzunen, Txerri Eguneako azokan, txerriak erosteko aukera izanen da.

Azoka. Urtarrilaren 6a arte, Areatzako karpan, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:30era.
Txan magoa. Gaur, 17:30ean, Kafe Antzokian.

DIMA. Liburu eta disko azoka. Astelehena arte, Herriko tabernan.

Jentilzubi elkarrekin antolatua.

ERMUA. Film Laburren 5.

Jardunaldiak. Bihar, 26an eta 30ean, Ermua zinematokian.

GERNIKA. Euskadiko XXVI. Barraskilo Txapelketa. Gaur, 10:00etan, Merkatu plazan.

LESACA. Ipuin kontaketa. Bihar, 17:00etan (3-6 urteko haurrentzat) eta 17:45ean (6 urtetik goitikoentzat), liburutegian. Kristina Eizmendi kontalariaren eskutik.

OIARTZUN. Herri kirolak haurrentzako. Bihar, 18:00etan, Kontzejupean. Kulki taldearen eskutik.

ONDARROA. Elbi sabel-hiztuna. Gaur, 17:00etan, Kafe Antzokian.

ikastaroak

ANTSOAIN. Jostailuak birziklatzeko lantegia. Bihar eta etzi, 11:00etan, Gazte Berriak patronatuan.

AZPEITIA. 'Abentura korporala' ikastaroa. Urtarrilean hasita, hamabi saioko ikastaroa, asteen behin. Pepa Bojo psikologoak emana. Interesa dutenek 943-157192 telefonora deitu behar dute, urtarrilaren 8a baino lehen.

BERRIOZAR. Hanka-luze lantegia. Bihar, 17:30ean, ludotekan.

BURLATA. Eguberrietako ipuinen lantegia. Bihar, 17:00etan eta 19:00etan, El Buho Sabion.

DONOSTIA. 'Nola idatzi telebista gidoi bat' ikastaroa.

Urtarrilaren 14tik otsailaren 27ra. Asteen hiru orduko bi saio. 'Nola gauzatu ideia', 'Nola idatzi gidoia', 'Komunikabiderako hizkera' eta 'Gaur egungo telebistaren beharrak' gaiak landuko dituzte. Informazio gehiago, Pausoka Eskolako 943 297111 telefonon eta www.pausoka-eskola.com

webgunean.
IRUÑA. Gazteentzako antzerki lantegia. Askagintza drogamenpeketasunaren prebentziorako erakundeak antolatuta. Gazteek antzerkiaren alderdi guztiak landuko dituzte, begiraleen laguntzaz. Lantegia dohainik da eta urtarrilean hasikoa da.

Informazio gehiago, 948-133918 telefonon.

ZARAUZ. Miguel Hernandez poetaren gaineko saioak. Bihar eta 30ean, 19:30ean, Olerti Etxean.

erakusketak

BILBO. 165 margolariren 165

akwarela. Juan Larrea aretoan, urtea bukatu arte.

DONOSTIA. 'Ehiztari handiak dira begiak'. J. M. Zabalaen argazkien erakusketa otsailaren 1a arte egonen da Koldo Mitxelena kulturunean.

EIBAR. 'Eibar argipean'. Eibarko azken 100 urteetako argazkiak.

Urtarrilaren 19a arte, Portalean.

ELGOIBAR. Gemma Monrealen margolanak. Urtea bukatu arte, erakusketa aretoan.

ERMUA. 'Afrika, umildutako kontinentea' erakusketa. Probalekua kaleko, 4bis - beheko lokalean egonen da ikusgai, abenduaren 27a arte.

antzerkia

'Lau Bűrü'. Gaur, Angeluko El Hogar salan (15:30ean).

Zuberoako kultura, 50 barkoxtar gaztek josirik

Nora Arbelbide | ANGELU

Lau Bűrü ikusgarria berrogeita hamar barkoxtar gaztek Angelura ekarriko dute gaur 15:30ean, El Hogar salara preseski. Euskal kulturaren milurteetako bilakera umorez jantzi dute ikusgarrian.

Ez da ardura ikusten Zuberoako ikusgarri bat Zuberoatik kanpo, eta horretarako ere du ekarri haien herrira taldea, hitz ordua antolatzen duen Angeluko ikastolako Kimua elkarteak. Barkoxtarrentzat ere aukera bat da «erakusteko zer egiten den Zuberoan», erran du Patrick Keheillek, ikusgarria idatzi duenak. Hitzordura bilduko direnak, hain zuzen, pastoraletatik aparte sorkuntza bereziak egiten direla ikusiko dute.

Aitzinarotik 2050. urtera arteko kulturaldiaren irudiak ematen ditu ikusgaiak. Patrick Keheillek asmatu eta Etxahun elkarteak 17 eta 30 urteren bitarteko 50 gazte inguruk tau-



CHRISTOPHE DE PRADA

Barkoxeko 50 gaztek muntatu duten *Lau Bűrü* ikusgarria.

laratu dute. Euskal kulturaren milaka urteko bilakera islatu nahi izan dute. Lau zatitan moldatua, zati bakoitza denboraldi bati eta kultur adierazpide bati lotua da. Hala, historiaurrean euskal kulturak zein itxura zuke-

en asmatzen entseatu dira lehen parte batean. Bigarren zatia maskaradak ditu ardatz gisa hartu, zehazki XVIII. eta XIX. mendeetan ematen zirenak. Gaur egungo euskal kulturaren errealitatea aipatzeko, berriz,

euskararen aldeko ahaleginak dira gogora ekarriak hirugarren zatian. Azken atalean, aldiz, pastoralak 2050. urtean zelako itxura zukeen asmatzen saiatu dira. Jokalariek iragarkiak soinean irudikatzen dituzte.

Agendan iragarri ahal izateko eman zuon ekitaldien berri agenda@egunkaria.com helbide elektronikoan, 943-300255 faxean edo 943-300222 telefonon.

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

70 x 33 mm
2 MODULO
(Iparralde)

Egun: 30 €
Astea (6 egun): 24 €
2 aste (12 egun): 20 €
Hilabetea (24 egun): 16 €

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 15 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea (24 egun): 8 €

70 x 33 mm
2 MODULO
(Araba-Nafarroa)

Egun: 30 €
Astea (6 egun): 24 €
2 aste (12 egun): 20 €
Hilabetea (24 egun): 16 €

